



### SUTEMOSE / IN THE DUSK • Lituania-Frantzia-Txekiar Errepublika-Serbia-Portugal-Letonia

Šarūnas Bartas (zuzendaria, gidolaria, ekoizlea)  
Simona Venckauskaite, Alina Lukosevic (zuzendaritza laguntzaileak)  
Janja Kralj (ekoizlea), Jurga Dikciuviene (ekoizlea), Joao Matos (ekoizlekidea)



Sutemose/In the Dusk filmeko lantaldea ezinbesteko maskarak txintxo jarrita.

MONTSE CASTILLO

## Šarūnas Bartas: “Nire historia da, nire herriarena”

SERGIO BASURKO

Šarūnas Bartas zuzendaria bere filmeko ekoizle tropelarekin agertu da prentsaurrean, izan ere, 1948ko Lituaniara garamatzen pelikula historiko honek sei herrialde desberdinetako finantziarioa izan baitu.

Zinemagile lituaniarrek bere filmetako batean gai historiko bat jorratzen duen lehen aldia da, Bigarren Mundu Gerraren osteko Lituaniaren okupazio errusiarrak kontatuz kasu honetan. Gaur egungo gaiei heltzen ohituagoa, *Sutemose/In the Dusk* filmak Unté 19 urteko gaztearen istorioa kontatzen du, sobietar okupazioari aurre egiten dion mugimendu partisanoko kide dena. Partisanoek ez dute sobietarrek baldintza berdinetan borrokatzen, eta borroka desorekatu horrek biztanle guztien etorkizuna baldintzatuko du. Gazteak bizitza deskubritzen duen heinean, indarkeria eta traizioa ere deskubrituko ditu.

“Nire historia da, nire herriarena”, esan du zuzendariak filmaren aurkezpenean. “Nire aitona-amonek kontatzen zizkidaten istorioak dira, nire haurtzaroren parte. XX. mendearen bigarren erdialdean jaio nintzen, azken partisanoa hil eta berehala, eta sobietarren kontrolpean urte asko bizi izan ginen, baina orain arte ez naiz gai izan honi buruz hitz egiteko”,

men-  
du  
partisanoko kide dena. Partisanoek ez dute sobietarrek baldintza berdinetan borrokatzen, eta borroka desorekatu horrek biztanle guztien etorkizuna baldintzatuko du. Gazteak bizitza deskubritzen duen heinean, indarkeria eta traizioa ere deskubrituko ditu.



Šarūnas Bartas lituaniar zuzendaria.

MONTSE CASTILLO

azaldu du Bartasek filmaren zergatiaz. “Okupazioa, independentzia gaitzea... hurbilegitik ukitzen ninduten gaiak dira. Oso mingarria zen niretzat honi buruz hitz egitea. Ez nintzen auzartzen”, argudiatu du.

Zuzendariak, hala eta guztiz ere, ez du film sasiabertzale bat egin nahi izan, “gertatu zenaren ikuspegi zabalagoa eman nahi nuen. Herrialdea erabat suntsituta geratu zen, Lituania ez zen berreraikuntzarik gertatu Alemanian bezala”. “Kartzela batean bezala geunden, altzairuzko oihal baten atzean espeteratuak. Mendebaldeko jendeak ezin du imajinatu ere egin zer gertatu zen hemen gerraren ondoren. Milaka pertsona bidali zituzten Siberiara, mehatxatuak, espeteratuak... Konfiskatutako jabetzak eta gosea, gose larria... Garai gris-grisak bizi izan genituen 50 urtetan”, adierazi du.

*Sutemose/In the Dusk*-en garraztasunak harridura sortzen du; batetik, halako gaia gazte baten ikuspuntutik kontatua dagoelako, eta bestetik, aktoreen antzezpen eta egokitasunagatik. “Aktoreen % 30 baino ez dira profesionalak. Izan ere, protagonista interpretazio eskolako lehen urtean zegoen eta tabernaz taberna olerkiak irakurtzen zebilela topatu genuen. Aktore gehienak filmatu genuen eskualdeko landa eta basoetako biztanleak dira, baina hain dira organikoak, hain lurrari errotuak, ez zirela konturatzen aktoreak ez direnik”, azaldu du Alina Lukosevic zuzendari laguntzaile eta casting arduradunak.

Azkenik, filmeko argiztapenaz ere mintzatu da Bartas: “Kandela, kerosenozko lanpara edo argi naturala erabili ditugu. Garai hartan Lituania ez zegoen erabat elektrifikatua, batez ere hirietatik urrun zeuden herrietan. Hori dela eta, argi-iturri nahiko ahulekin lan egitea beharrezkoa zen egiazkotasunaren mesedetan. Filmaren argazkilaritzak ikuslea limurtzen duela esango nuke”, ziurtatu du.

### Dusk falls on Lithuanian freedom

After the screening of his film *In the Dusk* yesterday, the Lithuanian director Šarūnas Bartas explained that this was the first time that he had dealt with his country's past in a film – he usually tackled contemporary themes – and confessed that he had always been a bit afraid of talking about Lithuania losing its independence: “I’m closely connected to the mid-20<sup>th</sup> century and we were in the cage of the Soviet Union for a long time. It’s very painful for me and maybe it’s too close for me to have made it earlier.”

Despite this he said that he hadn’t wanted to make a pseudo-patriotic film; what he aimed to do was to provide a broader perspective of how Lithuania ended up behind the Iron Curtain after the war. “It was a grey season for nearly 50 years. Nothing was rebuilt. No one in the West can imagine how it was. It was very present and I felt it very strongly when I was a boy,” Bartas pointed out. Producer Janja Kralj revealed that the film had divided public opinion when it was premiered in Lithuania. Some people were uncomfortable with the fact that it didn’t depict the partisans in a traditional heroic light, while others were impressed that it provided a more nuanced portrayal of events.



## San Telmo Museoa

EUSKAL GIZARTEA ATZO. EUSKAL GIZARTEA GAUR  
LA SOCIEDAD VASCA DE AYER. LA SOCIEDAD VASCA DE HOY

LA SOCIÉTÉ BASQUE D'HIER.  
LA SOCIÉTÉ BASQUE D'AUJOURD'HUI.  
THE BASQUE SOCIETY OF THE PAST.  
THE BASQUE SOCIETY OF THE PRESENT.

Zuloaga Plaza, 1  
20003 Donostia / San Sebastián  
T (00 34) 943 48 15 80  
www.santelmomuseoa.eus

@santelmomuseoa  
Instagram, Facebook, Twitter, YouTube

STM  
San Telmo Museoa

DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

DC  
donostia  
kultura